

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

·Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Proiektu honetan, bost kide gara eta bakoitzak funtsezko baliabide bat jarri ditu:

- **Aitana:** Barneko diseinua ikasi du eta oso gustuko du lokalak modu originalean apaintzea. Diseinu desberdinak sortzeko gaitasuna eta salmentarako abilezia dauka.
- **Ander:** Ingerieritza informatikoa ikasi du, beraz, webguneak sortzeko gaitasun handia garatu du azken urteotan.
- **Jon:** Publizitatea ikasi du eta oso ondo ematen zaio jendearen aurrean era erakargarrian hitz egitea. Hortaz, propaganda egiteko gaitasuna
- **Kimetz:** Psikologo oso jakintsua da, une oro daki zer nolako jarrera izan behar duen pertsona bakoitzarekin. Haur hezkuntza ere ikasi du, beraz, Umeak zaintzeko eta entretenitzeko gaitasuna
- **Alvaro:** Gure herrian duen lokala erabiliko dugu, aparteko egoeretan, umeak bertara eramateko beharra badago.

Gure proiektua funtziona dezan, hainbat hornitzaile nagusien laguntza ezinbestekoa da. Honako hauek aukeratu ditugu:

Alde batetik **Makro** izeneko merkataritza-sargailuen handizkako salmenta-autozerbitzuko katea.



Makro hornitzaile gisa erabiliko dugu, lokalean umeak dauden bitartean amaiketako eta edari mota desberdinak izateko. Modu horretan, norbait gose bada, elikagai mota desberdinak izango ditugu kantitate handitan.

Makro, 1968ko martxoaren 31n sortu zen Amsterdamen, Herbehereetan, Otto Beisheim-en sistemaren bidez. Makrok elikagaiak eta elikagaiak ez diren produktuak saltzen ditu, oro har dendako hainbat ataletan kokatuta daudenak,

eta Makro Mail famatuan erakusten dira, hamabost egunean behin.

Gaur egun, Makrok 700 denda baino gehiago ditu irekita hiru kontinentetan; horrek munduko handizkako salmenta-enpresa handiena bihurtzen du, eta munduko hirugarren taldea da banaketan, 33 herrialdetan presentzia duena.

Bestalde, **IKEA** izeneko enpresa hornitzaile gisa izango dugu. IKEA suediar jatorriko herbeheretar enpresa bat da. Salneurri baxuko altzariak eta etxerako apaingarriak ekoizten ditu, hauek erosleek berek muntatu ohi dituztela kostua gutxitze aldera. Gure enpresak, umeak zaintzeko



erraztasuna ematen du, baina batzuetan, aparteko egoerak sortzen dira. Guraso batzuek, gauean umea bakarrik uztea komenigarria ikusten ez badute, gure lokalean IKEA-tik eskuratutako altxairuekin sortutako jolasgelan geratzeko aukera egongo da.

Azkenik, lokal horretan, umeak entretenimendu bat izateko jostailuak egotea erabaki dugu. Beraz, gure hirugarren hornitzailea **Juguettos** izango da.

Juguettos adin guztietako haurrentzako jostailuetan espezializatutako frankizia da. 184 denda ditu, Espainia osoan zehar banatuta.



• Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Hiru hornitzaile hauei oso garrantzitsu deritzegu, gure enpresaren ezinbesteko atal bat direlako. Gure enpresa aurrera joan dadin, argi dago beste tresna batzuk beharko ditugula baina hauek eskainiko dizkiguten baliabideak oso garrantzitsuak dira. Aparteko egoeretan, hau da, gauez familia batek bere seme-alabak zaintzeko erreztasuna ez duenean, hornitzaile hauei esker izango dugun lokalean geratzea posiblea izango da.

Lokal horretan haiek denbora pasatzeko jostailuak aurkituko dituzte, lo egiteko oheak eta egongelak eta afaltzeko eta gosaltzeko aukera.

Hona hemen gure lokalaren antzekoa den lokala:

